Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# 2015 jarduera bilana
# 2016ko aitzinikusi jarduera programa

## EEPren hizkuntza politikaren kuadroa

### Hizkuntza Politika Proiektua : « Hiztun osoak helburu. Haur eta gazteak lehentasun »

- EEPk eraman euskararen aldeko hizkuntza politika publikoaren dokumentu estrategikoa, 2006ko abenduaren 26an adostua

- Hamabi erronka nagusi, hiru familiatan bilduak :

  - **Euskararen transmisioa** :
    - Familia bidezko transmisioa ;
    - Lehen haurtzaroaren harrera ;
    - Irakaskuntza.

  - **Euskararen erabilpena** :
    - Hedabideak ;
    - Aisialdiak ;
    - Argitalpena ;
    - Bizitza soziala ;
    - Toponimia.

  - **Zeharkako eremuak** :
    - Helduen euskalduntzea ;
    - Euskararen kalitatea ;
    - Ikerkuntza ;
    - Motibazioa.

### 2011-2016 Jokabide esparrua

- 2010ko urriaren 20an adostua, Hizkuntza Politika Proiektuaren lehentasunak eta obratzeko metodoa finkatzen ditu 2011-2016 urteentzat :

  - **norabide estrategiko bat : EEPren esku-hartzearen indartzea euskararen erabileraren eremuetan** (bizitza soziala, hedabideak, aisialdiak, argitalpena), une berean transmisio eremuetako esku-hartzea egonkortuz (lehen haurtzaroa, irakaskuntza, helduen euskalduntzea) ;

  - **hizkuntza politikaren obratzeko metodo bat : ekintza azpi-eremu koherenteen araberako esku-hartzea lehenetsi,** azpi-eremuaren errealitateak kontuan hartuz definitua izanen den estrategia berezitu batean oinarrituz ;

  - transmisio eta erabileraren eremuetan **lehentasunez landuko diren azpi-eremuen hautatzea** printzipio bikoitz baten arabera : **estrategia printzipioa eta errealitate printzipioa** ;

- EEPren lanetan, **subsidiariotasun printzipioa sistematikoki obratzea**, hau da :
    - finantzabide arrunten mobilizazioa lehenestea ;
    - politika arruntetan hizkuntza politikaren integratzea ;

- EEP eta Aholku Batzordearen artean etengabeko elkar aditzea plantan jartzea, obratu hizkuntza politikaren lantzeko eta jarraitzeko ;

- EEPren ingeniaritza baliabideen azkartzeari lehentasuna ematea, eta barneko antolaketa Jokabide Esparru berriaren arabera egokitzea.

- Transmisio eta erabileraren eremuetan lanean hasteko 2011-2016 urteetako aitzinikusia den egutegia :

    - **Euskararen erabilera**ren azpi-eremuak :

        - bizitza sozialean :
            - administrazioa, zerbitzu publikoak eta parapublikoak : 2011
            - garraioak : 2011-2012
            - osasun saila, merkataritza eta zerbitzuak : 2014-2016

        - aisialdietan :
            - harrera kolektiboa : 2011-2013
            - heziketa kulturala eta artistikoa : 2011-2013
            - kirol heziketa, zerbitzuen kontsumoa : 2014-2016

        - hedabideetan :
            - telebista : 2011-2013
            - irratia : 2011-2013
            - prentsa idatzia, web hedabideak : 2014-2016

        - argitalpenean :
            - liburuaren ekonomia : abiatu politikaren segitzea
            - irakurketa publikoa : 2011-2013

    - **Euskararen transmisioa**ren azpi-eremuak :

        - lehen haurtzaroaren harreran :
            - harrera kolektiboa : abiatu politikaren segitzea
            - familia harrera : 2011-2013

        - irakaskuntza :
            - irakaskuntza orokorra : abiatu politikaren segitzea
            - irakaskuntza teknologikoa eta profesionala : beharretatik abiatuz

        - familia bidezko transmisioan : gurasoen sentsibilizazio estrategia baten esperimentazioa Herri elkargo batean

## 2015eko jarduera bilana…

### 1/ Euskararen transmisioaren garatzea

- **Irakaskuntza**

  - EEPko 2014ko abenduaren 19ko Biltzar nagusiak adostu 2014-2015eko lan programa obratzea Hezkunde nazionalarekin, sail ezberdinetan :
    - 1. atala. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzea :
      - 1. mailako irakaskuntza :
        - Egingarritasun ikerketak : Ezpeize/Sarrikotapeko HEEan eta Angeluko Aristide Briand, Uztaritzeko Idekia eta Bardozeko eskola publikoetan
        - 2 sail elebidun berriren irekitzea 2015eko eskola sartzean : Ezpeize/Sarrikotapeko HEEan eta Bardozeko eskola publikoan
      - 2. mailako irakaskuntza :
        - Egingarritasun ikerketa : Baionako Largenté kolegio pribatuan
        - Sail elebidun berri baten irekitzea Baionako Largenté kolegioko 6.ean.
      - Irakaskuntza teknologikoa, profesionala eta laborantzazkoa :
        - Sail elebidun berri baten irekitzea Angeluko Santa Ana lizeo pribatuan, HZTB (hurbileko zerbitzuak eta tokiko bizia) 2., 1. eta terminalean
        - OSZT (osasun eta sozial zientziak eta teknologiak) sail elebidunaren azkartzea Angeluko Santa Ana lizeo pribatuan, 2., 1. eta terminalean, HEDIz (hizkuntza ez den ikasgia) gain, euskararen irakastearekin
    - 2. atala. Euskarazko irakaskuntzen egituraketa kualitatiboa :
      - Sail elebidunetako ikasleen euskara mailaren ebaluaketa :
        - CM2 (CECRL Europako kuadroko A2 maila) : ebaluaketen antolatzea eskola publiko eta giristino guzietan
        - Kolegioko 5.ekoen ebaluaketak (CECRL Europako kuadroko B1 maila) : ebaluaketen antolatzea 3 sareetako kolegio guzietan

## …2016ko jarduera programa

### 1/ Euskararen transmisioaren garatzea

- **Irakaskuntza**

  - EEPko 2015eko urriaren 9ko Biltzar nagusiak adostu 2015-2016ko lan programaren obratzea Hezkunde Nazionalarekin, sail ezberdinetan :
    - 1. atala. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzea :
      - 1. mailako irakaskuntza :
        - Egingarritasun ikerketak sail elebidun berri batzuk irekitzeko ondoko eskola publikoetan : Baionan eta Biarritzen (eskolak Herriko Etxeeekin adostu behar), Basusarrin, Hiriburuko Ourouspoure eskolan, Donibane Lohitzuneko Hiri Barneko eskolan, Zuraiden, Larzabaleko HEEn, Iholdin, Ligi/Liginagako HEEn, Arberatze/Arboti/Etxarriko HEEn, Garindainen
      - 2. Mailako irakaskuntza :
        - Egingarritasun ikerketak : Sohütako lizeo publikoan eta Angeluko Stella Maris kolegio pribatuan
      - Irakaskuntza teknologikoa, profesionala eta laborantzazkoa :
        - Ikastetxeekin hasi lanak jarraitzea sail elebidun berrien irekitze aukerak aztertzeko
    - 2. atala. Euskarazko irakaskuntzen egituraketa kualitatiboa :
      - Sail elebidunetako ikasleen euskara mailaren ebaluatzea :
        - CM2 (CECRL Europako kuadroko A2 maila) : ebaluaketen obratzea
        - Kolegioko 5.ean ( CECRL Europako kuadroko B1 maila) : ebaluaketen obratzea
        - Kolegioko 3.ean ( CECRL Europako kuadroko B2 maila) : ebaluaketen obratzea kolegio lagin batean
      - Irakasleen formakuntza :
        - Euskaraz irakatsi nahi duten irakaskuntza publikoko 1. eta 2. mailako irakasleen lehen formakuntza ikastaroa abiatzea
        - Irakaskuntza publikoko irakasleak galdezkatzea, jakiteko zeintzuk gogoa duten euskaraz irakasteko eta 2. formakuntza ikastaroa

## 2015eko jarduera bilana…

- Irakasleen formakuntza :
  - Euskaraz irakatsi nahi duten irakaskuntza publikoko 1. eta 2. mailako irakasleen formakuntza plana definitzea
  - Irakaskuntza giristinoko 2. mailako ikastetxeetan euskaraz irakasten ez duten irakasleak galdezkatzea, jakiteko zeintzuk euskara dakiten eta gogoa duten euskaraz irakasteko eta perspektiba honetan formatzeko
- 1. mailako ikastetxe elebidunetan irakaskuntzen antolaketari buruzko orientabide dokumentua : orientabide dokumentuaren hedatzea eskoletan
- Sail elebiduna segitu duten ikasleei araberako egiaztagiri baten emateko dispositiboa : sail elebidunetatik ateratzen diren eta diploma (baxoa edo CAP) ukan duten ikasleei ikasbide elebiduna segitu dutela ziurtatzen duen egiaztagiria errektoretzak ematea
- 1. mailako sail elebidunetan, esperimentazio pedagogikoen egitea euskarazko irakaskuntza oren kopurua emendatuz :
  - Esperimentazio eskaera egiteko protokoloaren hedatzea eskoletara
  - Esperimentazio proiektu berriak plantan ezartzea:
    - Esperimentazio proiektu bat duten irakasle taldeen laguntzea : egingarritasun ikerketak Jatsu, Uztaritzeko Idekia, Donibane Lohitzuneko Urdazuri eta Arbonako eskola publikoetan eta Ezpeletako San Estebe, Donibane Garaziko Santa Maria eta Baigorriko Donostei eskola pribatuetan
    - Ama-eskolako 1. eta 2. urtean, irakaspenak denbora osoz euskaraz egiten diren klaseetan oinarritu esperimentazioen plantan ezartzea Jatsu eta Arbonako eskola publikoetan, eta Donibane Garaziko Santa Maria eta Baigorriko Donostei eskola pribatuetan
    - Ama-eskolako 3 urteetan, irakaspenak denbora osoz euskaraz egiten diren klaseetan oinarritu esperimentazioen plantan ezartzea Donibane Lohitzuneko Urdazuri eskola publikoan eta Ezpeletako San Estebe eskola pribatuan
  - Jadanik martxan diren esperimentazioak hedatzea :
    - Esperimentazioa ama-eskolako 3. urtera hedatu nahi duten irakasle taldeak laguntzea : Azkaineko eskola publikoan eta Senpereko San Josepe, Azkaineko Santa Maria eta Arbonako

## …2016ko jarduera programa

prestatzeko

  - Hezkuntza nazionala/Akitaniako ESPE/UPPA/Bordeleko Montaigne Unibertsitatea/EEP hitzarmen-markoa idaztea, euskararen eta euskarazko formakuntzari buruz
  - Irakaskuntza katolikoko 2. mailako irakasleen formakuntza plana sortzea
- 1. mailako ikastetxe elebidunetan irakaskuntzen antolaketa orientabide dokumentua :
  - Orientabide dokumentua egokitzea eta eskoletan hedatzea
  - Publiko zabalari zuzendu dokumentua egokitzea eta hautetsiei eta gurasoei hedatzea
- Sail elebiduna segitu duten ikasleei araberako egiaztagiri baten emateko dispositiboa : sail elebidunetatik ateratzen diren eta diploma (baxoa edo beste) ukan duten ikasleei ikasbide elebiduna segitu dutelako Errektoretzak egiaztagiri baten ematea
- 1. mailako sail elebidunetan, esperimentazio pedagogikoen egitea euskarazko irakaskuntza oren kopurua emendatuz :
  - Esperimentazio eskaera egiteko protokoloaren hedatzea eskoletan
  - Esperimentazio proiektua duten irakasle lantaldeen laguntzea : egingarritasun ikerketak ondoko eskola publikoetan : Ahatsa/Mendibeko HEE, Sara, Ahetze, Ziburuko Marinela, Biarritzeko Reptou eta Urrunako Hiri Barna. Esperimentazioaren hedatze proiektua Donibane Garaziko ama-eskola publikoan, %75etik %100era
- Hezkunde Nazionala/Seaska/EEP hitzarmena :
  - Hitzarmen berria adostea eta izenpetzea
  - Hitzarmena obratzea
- 2. mailan euskaraz irakasten diren ikasgaiak zabalduz irakaskuntza elebidunaren azkartzea :
  - Etengabeko zaingoa euskara dakiten eta beren gaia euskaraz irakasteko prest diren 2. mailako irakasleak badirenez jakiteko, irakasle horien euskarazko maila ebaluatzea, formakuntza ikastaro batzuk antolatzea erregularki (Errektoretzako tokiko hizkuntzen ikuskariak)
  - Egingarritasunaren aztertzea ikastetxeetako zuzendariekin
  - Egingarritasunaren arabera, 2016ko eskola sartzean euskarazko irakaskuntza abiatzea ikasgai berrietan

## 2015eko jarduera bilana...

Laurendi eskola pribatuetan

- Eskatu esperimentazioen hedapena plantan ezartzea Azkaineko eskola publikoan eta Senpereko San Josepe, Azkaineko Santa Maria eta Arbonako Laurendi eskola pribatuetan

- Hezkunde nazionala/Seaska/EEP hitzarmena :
  - 2012-2015 hitzarmenaren obratzea
  - Hitzarmenaren arraberritze lanak bukatzea
- 2. mailan euskaraz irakasten diren ikasgaiak zabalduz, irakaskuntza elebiduna azkartzea : etengabeko zaingoa antolatzea euskara dakiten eta beren gaia euskaraz irakasteko prest diren 2. mailako irakasleak badirenez jakiteko eta irakasle horien euskarazko maila ebaluatzea
- Irakaskuntza elebidunean jarraitze tasak hobetzea : kolegioan eskaini sail elebidunean jaraitzeari buruzko abantailez eta onurez sentsibilizatzeko, CM1 eta CM2ko ikasle elebidunei eta haien burasoei zuzendu bilkurak antolatzea Hezkuntza Nazionala eta ikasleen buraso elkarteekin partaidetzan, ondoko kolegioetako sektoreetan : Hiriburuko Aturri, Donibane Lohitzuneko Chantaco eta Angeluko Endarra kolegio publikoetako sektoreetan eta Baigorriko Donostei eta Garaziko Mayorga kolegio katolikoetako sektoreetan

- Ikasmaterialaren ekoiztea :
  - Ikas pedagogia zentroaren funtzionamendua diruz laguntzea
  - 2015eko argitalpen programaren diruztatzea :
    - Euskara *Metodoa 1.mailan,* euskara irakasteko metodoa lehen mailan : CPkoaren argitalpen numerikoa eta CE1ekoaren ontzea
    - Aingeru *desagertua,* SARBACANE argitaletxeko L'ange Disparu albumaren itzulpena
    - *Historia-Geografia Baxoan 2015,* HATIER argitaletxeko Annabac saileko Annabac 2015 Histoire-Géographie TLE L, ES, eskuliburuaren itzulpena
    - *Haramat CE1,* HATIER argitaletxeko CAP Maths saileko fitxategiaren berrargitalpena
    - *Matematikak Lantzen CP,* Retz argitaletxeko J'apprends les maths saileko fitxategiaren berrargitalpena
    - *Matematikak Lantzen CE1,* Retz argitaletxeko J'apprends les maths saileko fitxategiaren berrargitalpena

## ...2016ko jarduera programa

- Irakaskuntza elebidunean jarraitze tasak hobetzea : Hezkuntza Nazionala eta ikasleen buraso elkarteekin partaidetzan, CM1 eta CM2ko ikasle elebidunei eta haien burasoei zuzendu bilkurak antolatzea, ikasleak eta burasoak sentsibilizatzeko kolegioan eskaini sail elebidunean jaraitzeari buruzko abantailez eta onurez

- Ikasmaterialaren ekoiztea :
  - Ikas pedagogia zentroaren funtzionamendua diruz laguntzea
  - 2016ko argitalpen programaren diruztatzea

- Klasetik kanpoko euskararen erabileraren sustatzea :
  - Proiektu deialdian parte hartu duten 68 ikastetxeek aurkeztu 125 proiektuen instrukzioa
  - 3 irakaskuntza sareen ordezkari eta aholkulari pedagogikoak biltzen dituen Batzorde teknikoak proiektuen aztertzea
  - EEPko Biltzar nagusiak erabakien hartzea
  - 2015-16 ikasturteko proiektu deialdiaren tratatzea eta hestea :
    - Proiektu ekarleek 2016ko irailaren 30eko helarazi beharreko justifikagirien aztertzea
    - Diru laguntzaren azken partearen ematea
    - 2015-16 ikasturteko proiektu deialdiaren bilanaren egitea
  - Dispositiboaren abiatzea 2016-17 ikasturtearentzat, erabakiaren arabera

- EEPko Biltzar nagusiaren prestatze lanak :

  - 2015-2016ko lan programaren obratzeari buruzko bide erdiko bilana prestazea (sail elebidun berri batzuen irekitzeko eraman egingarritasun ikerketen bilana, esperimentazioen proiektuak, euskarazko HEDI berriak abiaraztea...)

  - 2015-2016 ikasturteko jardueren bilana eta 2016-2017ko lan programaren proposamena prestatzea

  - Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

## 2015eko jarduera bilana...

- *Matematikak Lantzen CE2,* Retz argitaletxeko J'apprends les maths *saileko* fitxategiaren berrargitalpena
- Haur *literaturako* 4 album eta CDren berrargitalpen :
  - Adiskide *onak*, Flammarion argitaletxeko Père Castor sail klasikoko Les bons amis albumaren itzulpena (euskara batuan)
  - *Ahuntza eta pitikak*, Flammarion argitaletxeko Père Castor sail klasikoko La chèvre et les biquets albumaren itzulpena (euskara batuan)
  - *Gatu ttipi galdua*, Flammarion argitaletxeko Père Castor sail *klasikoko* Petit chat perdu albumaren itzulpena (euskara batuan)
  - *Hiru xerri ttipi*, Flammarion argitaletxeko Père Castor sail klasikoko *Trois* petits cochons albumaren itzulpena (euskara batuan)
- *AEKren Ikasbide metodoaren 1.en zatia (A1-1 maila),* helduei euskara irakasteko metodoa, AEK-k sortua

- Klasetik kanpoko euskararen erabilpenaren sustatzea :
  - Ikastetxeei zuzendu 2014-15 ikasturteko proiektu deialdiaren bideratzea eta bururatzea, euskararen erabilera kurtsoetaz haratago sustatzeko :
    - Proiektu ekarleek eman justifikagirien azterketa
  - Diru laguntzaren azken partearen ematea 2015-2016 ikasturteko proiektu deialdiaren obratzea:
    - 60.000 €ko fondo baten osatzea
    - Proiektu deialdiaren zabaltzea 2015eko maiatzean

- EEPko Biltzar nagusiaren prestatze lanak :
  - Irakaskuntzari buruzko Biltzar Nagusia 2015eko ekainaren 2an : Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren urte anitzeko programazioaren 1. eta 2. atalen obratzeari buruzko proposamenak adostea
  - 2015-2016 ikasturteko lan programaren proposamena, 2015eko urriaren 9ko Biltzar Nagusian adostua

## ...2016ko jarduera programa

## 2015eko jarduera bilana...

- Eragileak diruz laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Lehen haurtzaroa : Lehen haurtzaroaren harrera kolektiboa**

  - Leha dispositiboaren arraberritzeko lanak

  - Labelizatuak edota labelizatze bidean diren 20 haurtzaindegien jarraipena :
    - Labelizatuak diren 7 haurtzaindegien segitzea
    - Labelizatze bidean izendatuak izan diren 13 haurtzaindegien laguntza plagintzen diruztatzea eta segipena
    - Labelizatze eskaera bat egitekoa duten 2 haurtzaindegiren formakuntza planaren jarraipena eta diruztatzea

  - Guraso gazteentzat, lehen haurtzaroaren euskarazko harrera eskaintzari buruzko informazioaren hedapena « Pack 1 » dispositiboaren bitartez (ikus Familia transmisioari buruzko atala)

  - Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Lehen haurtzaroa : Lehen haurtzaroaren familiako harrera**

  - Etxe haurtzainentzat Kontseilu nagusiak obratu euskarazko agirien dispositiboaren jarraipena

  - Guraso gazteentzat, etxe haurtzainen euskarazko harrera eskaintzari buruzko informazioaren hedapena « Pack 1 » dispositiboaren bitartez (ikus Familia transmisioari buruzko atala)

## ...2016ko jarduera programa

- **Lehen haurtzaroa : Lehen haurtzaroaren harrera kolektiboa**

  - Leha dispositiboaren arraberritzeko lanak : lanen bururatzea

  - Dispositiboa epe motzean arraberritzeko solasen aitzina eramatea

  - 2015ean laguntza plangintzak bururatu dituzten 6 haurtzaindegien labelizatze eskaeren aztertzea labelizatze batzordearen baitan

  - Labelizatuak edota labelizatze bidean diren haurtzaindegien jarraipena :
    - Labelizatuak diren haurtzaindegien segitzea
    - Labelizatze bidean izendatuak izan diren haurtzaindegien laguntza plagintzen diruztatzea eta segipena

  - Euskarazko Haurtzainen Etxeentzat, Leha dispositiboaren baitan label batzuen sortzeko aukera aztertu

  - Guraso gazteentzat, lehen haurtzaroaren euskarazko euskarazko harrera eskaintzari buruzko informazioaren hedapena « Pack 1 » dispositiboaren bitartez (ikus Familia transmisioari buruzko atala)

  - Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Lehen haurtzaroa : Lehen haurtzaroaren familiako harrera**

  - Etxe haurtzainen Kontseilu nagusia obratu euskarazko agirien dispositiboaren jarraipena

  - Guraso gazteentzat, etxe haurtzainen euskarazko harrera eskaintzari buruzko informazioaren hedapena « Pack 1 » dispositiboaren bitartez (ikus Familia transmisioari buruzko atala

## 2015eko jarduera bilana...

- **Familia transmisioa**

  - Euskararen transmisioaz lurraldeko guraso berrien sentiberatzeko, EEP eta kolektibitateen arteko dispositibo partekatu baten obratzea :

    - « Pack 1 » haur sortu berrien gurasoei zuzendu dispositiboaren 1. fasearen obratzea :
      - EEPrekin hitzarmenez lotu hiri eta herri elkargo guzei proposatzea
      - Ekoizpen partekatua, EEPk denen kondu eginik
      - 1.650 familiei igortzea, dispositiboarekin bat egin duten kolektibitateen lurraldeetan : Baxe Nafarroa, Hego Lapurdi, Errobi, Hazparne eta Xiberoko Herri elkargoak
      - Dispositiboaren berriztatzeko erabakiaren hartzea (EEPren 2015eko abenduaren 4ko BN)

    - « Pack 2 » eskolatzekotan diren haurren gurasoei zuzendu dispositiboaren 2. fasearen obratzea :
      - EEPrekin hitzarmenez lotu hiri eta herri elkargo guzei proposatzea
      - Packaren definitzea : EEPk gidaturik, euskara teknikari-garatzaileekin elkarlanean
      - Ekoizpen partekatua, EEPk denen kondu eginik
      - 1.650 familiei igortzea, dispositiboarekin bat egin duten kolektibitateen lurraldeetan : Baxe Nafarroa, Hego Lapurdi, Errobi, Hazparne eta Xiberoko Herri elkargoak
      - Dispositiboaren berriztatzeko erabakiaren hartzea (EEPren 2015eko abenduaren 4ko BN)

### 2/ Hizkuntza erabileraren garapena

- **Euskararen presentzia eta erabilera bizitza sozialean : Administrazioa, zerbitzu publikoak eta parapublikoak**
  - « EEPko kideak eta haien menpeko erakundeak Euskararen presentzia eta erabilpena garatzearen alde lan egitera gomitatu eta lagundu » 1. neurriaren obratzea:

## ...2016ko jarduera programa

- **Familia transmisioa**

  - Euskararen transmisioaz lurraldeko guraso berrien sentiberatzeko, EEP eta kolektibitateen arteko dispositibo partekatu baten obratzea :

    - « Pack 1 », haur sortu berrien gurasoei zuzendu dispositiboaren 1. fasearen obratzea :
      - EEPrekin hitzarmenez lotu hiri eta herri elkargo guzei proposatzea
      - Ekoizpen partekatua, EEPk denen kondu eginik
      - EEPren partaide diren eta dispositiboarekin bat egiten duten kolektibitateen lurraldeetako familiei igortzea
      - Dispositiboaren berritzea hartu erabakiaren arabera

    - « Pack 2 », haurra eskolatzekotan duten gurasoei zuzendu dispositiboaren 2. fasearen obratzea :
      - EEPrekin hitzarmenez lotu hiri eta herri elkargo guzei proposatzea
      - Ekoizpen partekatua, EEPk denen kondu eginik
      - EEPren partaide diren eta dispositiboarekin bat egiten duten kolektibitateen lurraldeetako familiei igortzea
      - Dispositiboaren berritzea hartu erabakiaren arabera

    - Hitzaldi ziklo baten antolatzea publiko zabalarentzat eta bereziki aitamen sentsibilizatzeko elebitasunari eta eskolatze elebidunari, Hezkunde nazionalarekin, 3 sareetako arduradunekin, buraso elkarteekin eta kolektibitateekin elkarlanean : EEPk gidaturik, antolakuntza euskara teknikari-garatzaileekin

### 2/ Hizkuntza erabileraren garapena

- **Euskararen presentzia eta erabilpena bizitza sozialean: Administrazioa, zerbitzu publiko eta parapublikoak**
  - « EEPko kideak eta haien menpeko erakundeak Euskararen presentzia eta erabilpena garatzearen alde lan egitera gomitatu eta lagundu » 1. neurriaren obratzea :

## 2015eko jarduera bilana…

- Departamendua : laguntza teknikoa, Kontseilu Nagusiak onartu « Erakundean tokiko hizkuntzak sustatu » ekintza programako neurrien obratzeko
- Eskualdea : laguntza teknikoa, 2011ko ekainean bozkatu « Okzitaniera eta Euskara Eskualdeko instituzioan sustatzeko 2011-2014 plan[a] » eko neurrien obratzeko (lizeoetako seinaletikarendako eta lizeoen jaialdirako itzulpen eta hizkuntza baieztapenak)
- Euskal kultura sostengatzen duen herri arteko sindikatua : Sindikatuaren funtzionamenduaren baitan elebitasuna sistematizatzea (gutunak, dokumentuak eta sindikatu kontseiluko euskarriak, sindikatu kontseiluak, etab.)

- « Herri Elkargoak eta herriak haien menpeko erakundeak euskararen presentzia eta erabilpena garatzearen alde lan egitera gomitatu eta lagundu, hizkuntza teknikarien sarearen bitartez » 2. neurriaren obratzea:
  - Herriko Etxeekin eta Herri Elkargoekin lan egitea euskararen erabilera garatzeko hizkuntza teknikari-garatzaileen sarearen bitartez: ik. EEP/Tokiko aginteen arteko partaidetzen karietara hizkuntza teknikari-garatzaileen sareak burutu 2015 urteko jardueren bilduma dokumentua
  - Euskararen erabilpenaren garapenerako herrien laguntza dispositiboa, 2012ko uztailaren 16ko EEPko AKk onartu zuena, eta hobekuntza desmartxa baten bitartez, Herriko Etxearen ibilmolde elebidun autonomoa helburu duena:
    - Dispositiboaren esperimentazioa aitzina segitu da 7 herriko etxerekin, tokiko teknikari garatzaile bakoitzarekin lankidetzan:
      - 2013ko abenduan onartu hobekuntza kontratuen segipena (Hazparne, Maule, Itsasu):
        - Gidaritza batzordeetan parte hartzea
        - 2015eko bide orrien bilana, 2016ko bide orrien definitzea eta adostea
        - Itsasuko herriko etxearekin 2014-2015 aldirako izenpetua zen hobekuntza kontratua urte batez luzatzea
      - 2014ko abenduan onartuak izan ziren hobekuntza kontratuen jarraipena (Hendaia, Hiriburu)
        - Bi hobekuntza kontratuen izenpetzea
        - Jarraipen batzordeak plantan ezartzea eta horietan parte hartzea

## …2016ko jarduera programa

- Departamendua: laguntza teknikoa, Kontseilu Nagusiak onartu « Erakundean tokiko hizkuntzak sustatu » ekintza programako neurrien obratzeko
- Eskualdea:
  - 2011ko ekainean bozkatu « Okzitaniera eta Euskara Eskualdeko instituzioan sustatzeko 2011-2014 plan[a] » eko euskarari buruzko neurrien obratzearen bilana
  - laguntza teknikoa, plan indartu berri baten plantan ezartzean
- Estatua : erabakiaren araberako laguntza

- « Herri Elkargoak eta herriak haien menpeko erakundeak euskararen presentzia eta erabilpena garatzearen alde lan egitera gomitatu eta lagundu, hizkuntza teknikarien sarearen bitartez » 2. neurriaren obratzea :
  - Herriko Etxeekin eta Herri Elkargoekin lan egitea euskararen erabilera garatzeko hizkuntza teknikari-garatzaileen sarearen bitartez:
  - Euskararen erabilpenaren garapenerako Herrien laguntza dispositiboa:
    - Dispositiboaren esperimentazioa aitzina segitu, tokiko teknikari garatzaile bakoitzarekin lankidetzan:
      - Onartuak izan diren hobekuntza kontratuen jarraipena (Hazparne, Maule, Hiriburu, Hendaia, Senpere, Donibane Garazi, Uztaritze, Kanbo eta Baigorri):
        - Jarraipen batzordeak plantan ezartzea eta horietan parte hartzea
        - 2016ko bide orrien obratzea segitu, 2017ko bide orriak definitu eta adostu
      - Atharratzeko hobekuntza kontratuaren idazketa bukatzea:
        - Hobekuntza kontratua definitzea Herriko Etxearekin lankidetzan
        - Herriko Etxeek, Herri Elkargoek eta EEPko Biltzar Nagusiak hitzarmenak onartzea
      - 2 herri berrien hobekuntza kontratuak definitu: Azkaine eta Donibane-Lohizune:
        - Zerbitzuen diagnostikoa
        - Hobekuntza kontratua definitzea Herriko Etxearekin lankidetzan
        - Herriko Etxeek, Herri Elkargoek eta EEPko Biltzar Nagusiak hitzarmenak onartzea

## 2015eko jarduera bilana…

- 2016ko bide orrien definitzea eta onartzea
  - 5 hobekuntza kontraturen idazketa. Senpere eta Donibane Garazi, esperimentazioaren karietara ; Uztaritze, Kanbo eta Baigorri, herrien laguntza dispositiboa bertze herrietara hedatzeko xedearen baitan :
    - Zerbitzuen diagnostikoa
    - Hobekuntza kontratua definitzea Herriko Etxearekin lankidetzan
    - Kanbo eta Uztaritzeko herriko kontseiluei hobekuntza kontratuen dispositiboa aurkeztea
    - Herriko Etxeen, Herri Elkargoen eta EEPko 2015eko abenduaren 4ko Biltzar nagusiaren erabakiak
  - Atharratzeko hobekuntza kontratua prestatzeko lanak
  - Bilkurak bi herriko etxeri hobekuntza kontratua proposatzeko : Azkaine eta Donibane Lohizune
- Herriko etxeen esku uzteko euskarri elebidunak egokitzeko eta/edo ekoizteko elkarren arteko lana aitzina segitu da :
  - Dokumentu eta euskarri modelo elebidunen bilketaren jarraipena, hobekuntza kontratuen karietara: euskararen erabilpenaren garapenarendako estrategikoak diren dokumentuen hizkuntza baieztapena (adindunendako nortasun agiri eskaera frogagiria, adingabeendako nortasun agiri eskaera frogagiria, elkarbizitzako agiria, bideen lekualdatze eta erregulartzea, herriko alhagien erabiltzeari buruzko ziurtagiria, lur erretze galdeak, eremu publikoan saltzeko baimena, etab.)
  - Dokumentu horiek teknikari-garatzaileendako dagoen extranet sareko tresnan ezartzea

- « Eragile nagusiak, izan publiko, parapubliko edo izaera publikokoak euskararen presentzia eta erabilpena garatzearen alde lan egitera gomitatu eta lagundu, zuzenki edo hizkuntza teknikarien sarearen bitartez » 3. neurriaren obratzea:
  - Izenpetu hitzarmenen jarraipena eta obratzerako laguntza:
    - Pirinio-Atlantikoetako Laborantza Ganbera: Hitzarmenaren obratzearen jarraipena
    - Bil Ta Garbi sindikatua:
      - obratzearen jarraipena eta 3ème.urteko bilana

## …2016ko jarduera programa

- Esperimentazioa bukatuko delarik:
  - Dispositiboa zehaztu eta egokitu, beharrez
  - Proposamena zabaldu erabakien arabera
- Herriko etxeen esku uzteko euskarri elebidunak egokitzeko eta/edo ekoizteko elkarren arteko lana aitzina eraman:

- « Eragile nagusiak, izan publiko, parapubliko edo izaera publikokoak euskararen presentzia eta erabilpena garatzearen alde lan egitera gomitatu eta lagundu, zuzenki edo hizkuntza teknikarien sarearen bitartez » 3. neurriaren obratzea :
  - Izenpetu hitzarmenen jarraipena eta obratzerako laguntza
  - Hitzarmen baten izenpetzeari buruz abiatu lanak aitzina eraman
  - EEPk eragile nagusiei buruz abiatzen dituen desmartxa zuzenak aitzina eraman, eta lagundu erabakien arabera
  - Euskara teknikari-garatzaileen ekintza, haien lurraldeetan begiztatu eragile estrategikoei buruz, EEPrekin lankidetzan (eragilea gidaritza batzordeetan hautatzen da)

- EEP/Kolektibitateen arteko lankidetzen etengabeko jarraipena eta euskara teknikari-garatzaileek osatu sarearen koordinazioa:
  - Etengabeko laguntza teknikoa hizkuntza teknikari-garatzaileei
  - Gidaritza batzordeetan parte hartzea
  - Euskara teknikari garatzaileen koordinazioa eta lan bilkuren antolatzea
  - EEPrekin hitzarmenez lotuak diren elkargoen lehendakari eta auzapez guziekin lotura bilkuren antolatzea
  - Bururatzen diren EEP/elkargoen arteko hitzarmenak (4 dira 2016ean):
    - Hitzarmenen bilan partekatua
    - Hitzarmen proposamen baten prestaketa
    - Erabakiaren arabera arraberritzea

## 2015eko jarduera bilana…

- Hitzarmen berria osatzeko prestaketa bilkura
    - Baionako Euskal Museoa: obratzearen jarraipena eta lehen bi urteko bilana
    - Garapen kontseilua: obratzearen jarraipena, 1. urteko bilanaren eta 2. urteko bilanaren prestatzea
    - Euskal Kostaldeko Ospitalea: Gidaritza batzordea plantan ezartzea eta obratzearen jarraipena
  - Hitzarmen berrien prestaketa, bozkatzea eta izenpetzea:
    - Donapaleuko Ospitalea
    - Luro Fundazioa
    - Pirinio-Atlantikoetako ofizio eta ofizialeen ganbera
    - Capio Clinique Belharra
  - Lehen harremanak :
    - BAB2 Merkatal Zentroa
    - Crédit Agricole Pyrénées-Gascogne bankua
  - Euskararen presentzia eta erabilpenaren garapena IKEAren baitan :
    - Saltegi osoko seinaletikarendako itzulpen eta baieztapen lanak
    - Laguntza teknikoa bertze neurri zenbait obratzeko, eta desmartxaren jarraipen hurbila

- EEP/Kolektibitateen arteko lankidetzen etengabeko jarraipena eta euskara teknikari-garatzaileek osatu sarearen koordinazioa:
  - Etengabeko laguntza teknikoa hizkuntza teknikari-garatzaileei
  - Gidaritza batzordeetan parte hartzea
  - Euskara teknikari garatzaileen koordinazioa eta lan bilkuren antolatzea
  - Hitzarmenen bilanak eta arraberritzeak:
    - EEP/Hazparneko lurraldea herri elkargoa hitzarmena:
      - 2012-2015 hitzarmenaren bilan partekatua
      - Hitzarmena berritzea 3 urterako
    - EEP/Errobi Aturri Herri Elkargoaren arteko hitzarmena:
      - 2012-2015 hitzarmenaren bilan partekatua
      - Hitzarmena berritzea 3 urterako
    - EEP/Soule-Xiberoa Herri Elkargoaren arteko hitzarmena:
      - 2012-2015 hitzarmenaren bilan partekatua

## …2016ko jarduera programa

## 2015eko jarduera bilana...

- **Euskararen presentzia eta erabilpena bizitza sozialean : enpresak, merkatariak eta zerbitzuak**

  - Euskal Moneta:
    - Hitzarmenaren obratzea :
      - Ofizioko itzultzaile batek itzulitako datuak igorri zaizkie bertze 40 saltegiri (hitzarmena izenpetu zenetik 101 saltegiren afixaketa datuak itzuliak izan dira)
      - Datu base bat elikatzea: 1.500 sarrera berri, 2014 eta 2013ko datuekin 5.000 sarrera orotara

  - Lurraldeko supermerkatuetan euskararen presentzia eta erabilpena garatzea (zuzenki):
    - E. Leclerc Marinadour: Bilkura, lankidetza proposamena eta laguntza teknikoa (diagnostikoa, itzulpenak, hizkuntza baieztapenak)
    - Bidarteko Intermarché: Supermerkatuaren eta honi lotua zaion merkatal gunearen berritzearen karietara, bilkura eta lankidetza proposamena

  - Euskararen erabilpenaren garatzea enpresa, merkatari eta zerbitzuetan, hizkuntza teknikari-garatzaileekin elkarlanean:
    - Soule-Xiberoa herri elkargoko teknikari-garatzailea laguntzea okindegiei buruz abiatu desmartxaren karietara, euskararen presentzia eta erabilpena gara dezaten
    - Laguntza teknikoa, jarraipena, itzulpenak eta hizkuntza baieztatzeak supermerkatu hauentzako: Itsasuko Intermarché, Hiriburuko Carrefour Market

  - Euskararen presentzia eta erabilpena garatzea ikastegi elebidunetan:
    - Hitzarmen izenpetzeak Uztaritzeko San Josepe lizeoarekin eta Donibane-Lohizuneko Dona Maria kolegioarekin, DDECrekin eta Errobi herri elkargoarekin abiatu esperimentazio baten karietara
    - Hitzarmen horien obratzea eta jarraipena (formakuntza planak, dokumentuen itzulpenak eta gidaritza batzordeetan parte hartzea)

## ...2016ko jarduera programa

- **Euskararen presentzia eta erabilpena bizitza sozialean: enpresak, merkatariak eta zerbitzuak**

  - Euskal Moneta:
    - Iragan lankidetzaren bilan partekatua eta partaidetza berri baten sortzea elkartearen kide diren saltegiak euskararen presentzia eta erabilpena garatzen laguntzeko

  - Euskararen erabilpenaren garatzea enpresa, merkatari eta zerbitzuetan, hizkuntza teknikari-garatzaileekin elkarlanean

  - Euskararen presentzia eta erabilpena garatzea ikastegi elebidunetan :
    - Izenpetu hitzarmenen obratzearen jarraipena (gidaritza batzordeetan parte hartzea, hizkuntza baieztapenak…)

## 2015eko jarduera bilana…

- **Aisialdiak : Aterberik gabeko aisialdi zentroak (AGAZ)**
  - AIGA elebidunen formakuntza saioen antolaketari buruz, DDCS 64/JS-ek, partaide ezberdinak (DDCS, CEMEA, Franca 64, Aroeven Aquitaine, Uda Leku, Euskaldun Gazteria, EEP) bilduz, plantan eman gidaritza batzordean parte hartzea.
  - Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

- **Aisialdiak : eskolaz kanpoko asialdi uneak**
  - Herri elkargoen laguntzea (Errobi eta Hego Lapurdi) euskarazko eskolaz kanpoko aisialdi uneak antolatzen

- **Aisialdiak : Heziketa artistikoa eta kulturala**
  - HN/DK eragile kulturalen labelizatze dispositiboa: eraketan laguntza, euskara kontuan hartua izan dadin
  - Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

## …2016ko jarduera programa

- **Aisialdiak : Aterberik gabeko aisialdi zentroak (AGAZ)**
  - AGAZetan euskarazko harrera garatzeko eta egituratzeko politika baten obratzearen abiatzea :
    - Obratzearen abiatzea : egitura bolondresekin esperimentazioa
  - AIGA elebidunen formakuntza saioen antolaketari buruz, DDCS 64/JS-ek plantan eman gidaritza batzordean parte hartzea, eta formakuntzarako baliagarriak diren tresnen moldatzen laguntzea (lexiko elebiduna, ikastaro elebidunetako datu bilketarako orria, adingabekoen harrera kolektiboari buruzko araudiaren sintesia)
  - Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

- **Aisialdiak : eskolaz kanpoko asialdi uneak**
  - Euskarazko eskolaz kanpoko aisialdi uneen diagnostiko baten egitea, bai eta ere alor horri lotu politika eta dispositiboen aztertzea
  - Euskarazko irakaskuntza segitzen duten ikasle guziei zuzendu euskarazko aisialdi eskaintza baten garatzeko estrategia baten definitzea, herri eta herri elkargoekin partaidetzan.

- **Aisialdiak : Heziketa artistikoa eta kulturala**
  - HN/DK eragile kulturalen labelizatze dispositiboa: eraketan laguntza, euskara kontuan hartua izan dadin
  - Euskarazko eskaintza koherentzian jarri eta integratu indarrean diren dispositibo eta politikekin
  - Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

## 2015eko jarduera bilana…

- **Hedabideak**

  - ETBren hedapen numerikoa :
    - EKSHSren laguntzea finantzamenduen galdatzeko kolektibitateei
    - Jarraipen administratibo eta teknikoa

  - Eragileak egituratzen laguntzea :
    - Eragileek abiatu desmartxen laguntzaren eta jarraipenaren segitzea
    - Euskal Hedabideak: Euskal hedabideen lankidetzaren bultzatzeko helburua duen ADEPFO (Association de Développement des Pyrénées par la Formation) formakuntzaren jarraipena.

  - Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

- **Argitalpena: Liburuaren ekonomia**

  - Eragileei diru-laguntzak, EEP/EJ diru-laguntza deialdiaren bitartez:
    - Euskarazko obrak argitaratzeko diru-laguntza: 17 proiektu 2015ean (22 proiektu 2014an)
    - Merkaturatze tresnak ekoizteko argitaratzaileei laguntza: 4 proiektu 2015ean (7 proiektu 2014an) 4 proiektu 2015ean (7 proiektu 2014an)
    - Euskarazko liburuen eta irakurketaren inguruan, eskolan edota eskolaz kanpoko animazio pedagogikoak eskaintzen dituzten eragileei laguntza: 3 proiektu 2015ean (3 proiektu 2014an)

- **Argitalpena: Irakurketa publikoa**

  - Irakurketa publikoaren sarean euskara garatzeko xedez onartu politikaren obratzea, EEPren esku-hartzea alor horretan diharduten beste aktore eta instituzio guzien osagarritasunean (Departamendu Kontseiluko Bibliothèque Départementale de Prêt, KAEZ-DRAC, Bilketa, EKE):
    - Euskarazko argitalpen euskarriak erosteko laguntza

## …2016ko jarduera programa

- **Hedabideak**

  - ETBren hedapen numerikoa :
    - EKSHSren laguntzea finantzamenduen galdatzeko kolektibitateei
    - Jarraipen administratiboa eta teknikoa

  - Eragileak egituratzen laguntzea :
    - Eragileek abiatu desmartxen laguntzaren eta jarraipenaren segitzea
    - Euskal Hedabideak: ADEPFO (Association de Développement des Pyrénées par la Formation) formakuntzaren bururatzea, eta formakuntzari emanen zaion segidaren jarraipena.
  - Hedabideen gaiari buruzko politika baten azterketa eta proposamena

  - Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

- **Argitalpena: Liburuaren ekonomia**

  - Eragileei diru-laguntzak, EEP/EJ diru-laguntza deialdiaren bitartez:
    - Euskarazko obrak argitaratzeko diru-laguntza
    - Euskarazko obrak merkaturatzeko tresnak ekoizteko argitaratzaileei laguntza
    - Euskarazko liburuen eta irakurketaren inguruan, eskolan edota eskolaz kanpoko animazio pedagogikoak eskaintzen dituzten eragileei laguntza

  - EEPren lehentasunen eta bide-orriaren birdefinizio lanketa, liburuaren ekonomiaren alorrean

- **Argitalpena: Irakurketa publikoa**

  - Irakurketa publikoaren sarean euskara garatzeko xedez onartu politikaren obratzea, EEPren esku-hartzea alor horretan diharduten beste aktore eta instituzio guzien osagarritasunean (Departamendu Kontseiluko Bibliothèque Départementale de Prêt, KAEZ-DRAC, Bilketa, EKE):
    - Euskarazko argitalpen euskarriak erosteko laguntza

dispositiboa obratzea: 15.000 €ko dirutza, 55 eragile lagunduak

- Irakurketa publikoaren egituretan euskararen erabileraren garapena, kolektibitateekin partaidetzan.

## 3/ Laguntzazko edo zeharkako funtzioak eta dispositiboak

- **Helduen euskalduntzea**

  - Langileen euskarazko etengabeko formakuntzarako laguntza:
    - Eremu publikoan:
      - CNFPTrekin, lurraldeko agente publikoen euskarazko formakuntzarako partaidetza:
        - CNFPT eta EEPko lehendakarien arteko bilkura: lurralde mailako formakuntza profesional bati buruzko hiru urteko partaidetza hitzarmena plantan ezartzeko adostasuna, urtero lurraldeko funtzio publikoko agenteez osatu hiru talderen euskarazko formakuntza profesionala obratzea aurreikusiz, CNFPTk, EEPk eta kolektibitateen diruztatze partakatuarekin.
        - Partaidetza hitzarmena definitzea eta 2015eko abenduaren 4ko EEPren BNan onartzea
      - Agente publikoen formakuntza planak, CNFPTrekilako esperimentaziotik at:
        - Formakuntza planen muntatzeko laguntza teknikoa
        - Xiberoa, Errobi, Hazparne, Amikuze, Iholdi-Oztibarre, Garazi-Baigorri Herri elkargoak eta Hego Lapurdiko Hirigunea diruz laguntzea
      - Irakasleen formakuntza: Ik. irakaskuntza
      - Enplegu galdegileentzako formakuntza: Enplegu galdegileentzako euskarazko formakuntza experimental trinko baten muntaketa eta obratzeari buruz laguntzea, AEKrekin eta Akitania Eskualdearekin partaidetzan
    - Eremu para-publiko edo izaera publikodunak: langileen euskarazko



dispositiboa obratzea: 2016ko dispositioboa definitzea eta obratzea

- Irakurketa publikoaren egituretan euskararen erabileraren garapena, kolektibitateekin partaidetzan.
- Partaide guziekin elkarradituz, ekintza programa partekatuaren obratzea jarraitzeko dispositio bat gauzatzea

## 3/ Laguntzazko edo zeharkako funtzioak eta dispositiboak

- **Helduen euskalduntzea**

  - Langileen euskarazko etengabeko formakuntzarako laguntza:
    - Eremu publikoan:
      - CNFPTrekin, lurraldeko agente publikoen euskarazko formakuntzarako partaidetza:
        - Lurraldeko formakuntza profesionalerako CNFPT eta EEPren arteko hitzarmena obratzea Hiru taldeen osaketarako eta dagozkien formakuntza planak sortzeko CNFPT laguntzea, kolektibitateekin harremanean, hiru taldeak jarraitzea
      - Agente publikoen formakuntza planak, CNFPTrekilako esperimentaziotik at:
        - Formakuntza planak muntatzeko laguntza teknikoa
        - Finantzamendu partekatua, erabakiaren arabera
      - Irakasleen formakuntza: Ik. Irakaskuntza
      - Enplegu galdegileentzako formakuntza:
        - Enplegu galdegileentzako euskarazko formakuntza experimental trinkoaren jarraipena, AEKrekin eta Akitania Eskualdearekin partaidetzan
        - Proiektuaren eraberritzearen prestaketa
    - Eremu para-publiko edo izaera publikodunak: langileen euskarazko formakuntza martxan ezartzeko laguntza teknikoa
    - EEPko kideetako agenteen euskarazko formakuntza profesionalean, EEPren finatzamendu partekatuaren modalitateen azterketa

  - Norbanako helduen euskarazko formakuntzaren sustatzea:

## 2015eko jarduera bilana…

formakuntzaren martxan ezartzeko laguntza teknikoa

- Norbanako helduen euskarazko formakuntzaren sustatzea:
  - AEKrekin eraman lanaren jarraipena, norbanakoen euskalduntze eremua egituratzeko gisan:
    - Helduen euskalduntze prozesuaz den ikerketa kualitatiboaren jarraipena, Iker ikerketa zentroarekin partaidetzan
  - Ikaslearentzako diru-laguntza esperimentala Xiberoa eta Errobi Herri elkargoetan :
    - Dispositibo esperimentaleko ikasleak diruz laguntzen segitzea

- Eragileei diru-laguntzak, EEP/EJ diru-laguntza deialdiaren bitartez

- **Hizkuntza gaitasun egiaztatze dispositiboa**

- C1 (EGA) mailako egiaztatze proben urteroko bi deialdien antolaketa:
  - Maiatz-ekaineko deialdia: 104 kandidatu, 61ek gainditua
  - Urriko deialdia: 37 kandidatu, 19k gainditua

- B1 mailako agiria (B1EA) eskuratzeko urteroko azterketa deialdi baten antolaketa, publiko zabalari irekia eta C1 mailako azterketen data beretan antolatua:
  - 49 kandidatu, 40k gainditua

- Hizkuntza egiaztapen dispositiboaren egituraketa :
  - Bordeaux Montaigne eta Paue eta Aturrialdeko Unibertsitateekilako partaidetza:
    - Hitzarmenaren ebaluazioa eta partaidetzaren eraberritze baldintzak definitzea
    - Hitzarmena eraberritzea 2016-2020 epealdirako
  - Euskarazko gaitasun agiriak, Zertifikazio Profesionalen Batzorde Nationalaren (ZPBN-CNCP) Inbentarioan sartzea eta Lanbidearteko eskualdeko zerrendan (LEZ-LRI) sartzea Formakuntza kontu pertsonalerako (FKP-CPF) finantzabideak irekitzeko.

## …2016ko jarduera programa

  - AEKrekin eraman lanaren jarraipena, norbanakoen euskalduntze eremua egituratzeko gisan:
    - Helduen euskalduntze prozesuaz den ikerketa kualitatiboaren jarraipena, Iker ikerketa zentroarekin partaidetzan
    - Helduen euskalduntzearen egituraketaren modalitateak, molde elkarradituan definitzea
  - Ikaslearentzako diru-laguntza esperimentala Xiberoa eta Errobi Herri elkargoetan:
    - Dispositibo esperimentaleko ikasleak diruz laguntzen bururatzea

- Eragileei diru-laguntzak, EEP/EJ diru-laguntza deialdiaren bitartez

- **Hizkuntza gaitasun egiaztatze dispositiboa**

- C1 mailako agiria eskuratzeko urteroko bi azterketa deialdiren eta B1 mailako agiria eskuratzeko urteroko azterketa deialdiaren antolaketa

- Hizkuntza egiaztapen dispositiboaren egituraketa:
  - B1 mailako agiria egonkortzea:
    - B1 mailako agiriaren zuzentzaileak formatzea
    - Publiko zabalari begira egin B1 mailako lehen azterketa-saioaren bilduma
  - Interneten argitaratzeko, C1 eta B1 mailako iragan azterketen prestakuntza, publiko zabalari begira orokorki eta euskara irakasleentzat bereziki ere
  - Eusko Jaurlaritzarekin urraspideak ematea, B1 mailako agiria Euskal Autonomia Erkidegoan baita Nafarroan ere baliokidetzeko

## 2015eko jarduera bilana...

- **Hizkuntza ekoizpen eta baieztapenak**

  - Hizkuntza baieztapen funtzioa egituratzea:
    - Hizkuntza baieztapen lanak segitzea eta garatzea, eragile publikoen eta para-publikoen eskaera gero eta ugariagoei erantzuteko, horretarako oinarrituz:
      - pertsona adituengan itzulpen lanak baieztatzeko
      - Euskaltzaindian, toponimoak baieztatzeko
    - Hazparneko lurraldeko toponimia proiektuaren jarraipena Euskaltzaindiarekin

  - Teknikari-garatzaileek eskatu itzulpen lanak laguntzea:
    - Itzuli diren dokumentu nagusien zuzenketa eta baieztapenaren jarraipena, bereziki hobekuntza proiektuen alorrean, etknikari-garatzaileen eskaerei erantzunez, eta itzulpen-memoria nagusi eta partekatua elikatzeko
    - Itzulpenetan laguntzeko tresna bat aztertzea eta hautatzea, EEPk eta euskara teknikari garatzaileek sarean erabiltzeko gisan

  - Bizitza sozialeko alorrean EEPren partaide direnen itzulpen lanak laguntzea: Pirinio Atlantikoetako Departamendua (kolegioak, garrioak, bide seinaleak, eraikinak…), Departamenduko Artxibategi zentroa, Eskualde Kontseilua, IKEA, Capio taldea, Cdonapaleuko Ospitale zentroa, Luro Klinika, AIGA-BAFA elebidunaren gisaritza batzordea, Leclerc Baiona, Intermarché kambo, Bidarteko MAO-EHPAD, Euskal Moneta, Collectivité Service,…

  - Hizkuntza baliabideak sortzea:
    - EEPko webgunean diseinatze lana jarraitzea honakoetarako:
      - Elkargo publikoek deskargatu ahal izango dituzten ereduzko dokumentuen biltegiratzeko gunea
      - merkatu eta ostalaritzako itzulpen, termino eta erranmoldeen biltegiratzeko gunea, merkatarien zerbitzuko, Euskal Moneta elkartearekin den partaidetza lanean egin baieztapenetan oinarritua

## ...2016ko jarduera programa

- **Hizkuntza ekoizpen eta baieztapenak**

  - Hizkuntza baieztapen funtzioa egituratzea:
    - Hizkuntza baieztapen lanak jarraitzea, honakoetan oinarraituz:
      - pertsona adituengan, itzulpen lanak baieztatzeko
      - Euskaltzaindian, toponimoak baieztatzeko
    - Euskatzaindiarekin, lurraldetik heldu diren toponimia proiektuen azterketa eta jarraipena, bereziki Hazparneko lurraldeko proiektua

  - Euskara Teknikari-garatzaileek eskatu itzulpen lanak laguntzea:
    - Itzuli diren dokumentu nagusien zuzenketa eta baieztapenaren jarraipena, bereziki hobekuntza proiektuen alorrean, teknikari-garatzaileen eskaerei erantzunez.
    - EEPren partaide diren lurraldeko elkargo eta hiriekin, 15 Hiztegi ttipiren hizkuntza baieztapena
    - EEP eta euskara teknikari garatzaileen artean partekatuak izateko tresnak sarean ezartzen jarraitzea: Itzulpen memoria partekatua elikatzea, itzulpenen kudeaketarako tresnen analisia
    - Itzulpenak laguntzeko programez, formakuntzak antolatzea

  - Bizitza sozialeko alorrean EEPren partaide direnen itzulpen lanak laguntzea

  - Alor berezi batzuetako terminologia lanak: Asialdiko harrera, lizeo profesionalak…

  - Hizkuntza baliabideak sortzea:
    - EEPren webgunean publikoari honakoak zabaltzea:
      - Elkargo publikoek deskargatu ahal izango dituzten ereduzko dokumentuen biltegiratzeko gunea
      - merkatu eta ostalaritzako itzulpen, termino eta erranmoldeen biltegiratzeko gunea, merkatarien zerbitzuko, Euskal Moneta elkartearekin den partaidetza lanean egin baieztapenetan oinarritua

## 2015eko jarduera bilana…

- **Hizkuntza politikari buruzko mugaz gaindiko lankidetza**

  - EEP/Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzaren artean izenpetu urteko hitzarmenaren berritzea : 2011-2016 Hitzarmen-markoari lotzen den 2015ko eranskinaren izenpetzea

  - Iparraldeko eragile pribatuei zuzendu diru-laguntzen esleitzeko antolatu dispositiboaren bideratzea (eragile jakinak hitzarmenez lotzea eta hizkuntza jarduera proiektu deialdia) :
    - 2016erako lankidetzarako fondo baten eratzea, alde bien ekarpenez, guztira 1.600.000 €koa, EEPk 1.200.000 € jarriz eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 400.000 €, bi multzotan antolatua :
      - 1.280.000 €ko lehen multzoa : bi partaideen arteko sustapen-lerroekin bete betean datozen Ipar Euskal Herriko elkarte-eragile jakin batzuen diruztatzea, 2015. urterako balio izan duen hitzarmen baten berme
      - 320.000 €ko bigarren multzoa : Ipar Euskal Herriko beste hainbat eragile pribatuei zuzendu hizkuntza jarduera proiektu deialdi baten bidez bideratua
    - Hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren irekitzea : 2015ko apirilaren 1ean
    - Diru-laguntza eskaera helarazi duten 66 eragilek non 20 berrik (2014 : 64 eragile non 18 berri) luzatu 90 proiektuen non 41 berrien azterketa (2014 : 94 proiektu non 25 berri), Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean
    - Erabakien hartzea : EEPren 2015ko ekainare 30eko Biltzar nagusian
    - EEP/Eusko Jaurlaritzaren artean hartu erabakien berri elkarrekin ematea 2015eko uztailaren 7an :
      - Eragile jakinak hitzarmenez lotzea : 8 eragile
      - Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia : 45 eragile, 65 proiektu

  - Elkarlanean bideratu lanak:
    - Helduen euskalduntzea:
      - Euskara gaitasun agiriak:
        - B1 mailako agiria publiko zabalari irekitzea, HABE institutoko zerbitzuekin elkarlanean
        - C1 mailako agiridunen zerrendak helaraztea, agiriaren baliokidetzaren onura eskura dezaten

## …2016ko jarduera programa

- **Hizkuntza politikari buruzko mugaz gaindiko lankidetza**

  - EEP/Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzaren artean izenpetu urteko hitzarmenaren berritzea :
    - 2011-2016 Hitzarmen-markoari lotzen den 2016eko eranskinaren definitzea eta adostea
    - 2016ko abendoaren 31an bururatuko den hitzarmen-markoaren arraberritzen prestaketa lanak

  - Iparraldeko eragile pribatuei zuzendu diru-laguntzen esleitzeko antolatu dispositiboaren bideratzea (eragile jakinak hitzarmenez lotzea eta hizkuntza jarduera proiektu deialdia) :
    - 2015eko dispositiboaren zuritzea eta kitatzea :
      - Esleitu diru-laguntzen kitatzeko bidean, 2016eko otsailaren 28rako helarazi beharreko justifikagirien azterketa, zuriketa eta txosten guzien kitatzea
      - Buruari lotu bilan orokorraren egitea eta Eusko Jaurlaritzari 2016eko ekaina bukaerarako helaraztea
    - 2016eko dispositiboaren bideratzea :
      - Hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren irekitzea
      - Aurkeztu txostenen aztertzea, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean
      - Erabakien hartzea : EEPren Biltzar nagusiak
      - EEP/Eusko Jaurlaritzaren artean hartu erabakien berri elkarrekin ematea

  - Elkarlanean bideratutako lanak:
    - Helduen euskalduntzea:
      - Euskara gaitasun agiriak:
        - Partaidetzaren jarraipena, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foruzaingoan eman B1 mailako gaitasun agiriekin baliokidetzea lortzeko
        - C1 eta B1 mailako agiridunen zerrendak helaraztea, agiriaren baliokidetzaren onura eskura dezaten
        - 2015ean HABEk argitaratu HEOC-Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren aurkezpena antolatzea, helduen euskalduntzean bereziki, baina bigarren mailako euskarazko irakaskuntzan ari diren irakasleei zuzendua ere.

## 2015eko jarduera bilana...

- Helduen euskalduntzea laguntzeko dispositiboa:
  - Euskaltegiei zuzendu laguntza dispositiboen azterketa bururatzea
  - Ikasleei zuzendu laguntza dispositiboen azterketa bururatzea
- Ekoizpen eta baieztapen linguistikoak: Itzulpenetan laguntzeko tresna bat aztertzea eta hautatzea, EEPk eta euskara teknikari garatzaileek sarean erabiltzeko gisanEuskararen eremuan kokatzen diren lurralde administratibo ezberdinen artean, euskararen adierazle sistema baten egituratzeko baldintzen aztertzen hastea
- Euskararen eremuan kokatzen diren lurralde administratibo ezberdinen arteko euskararen adierazle sistema :

  -proiektuaren egituraketa eta definizio lanak,

  - 2014-2020 epealdirako POCTEFA Espainia-Frantzia-Andorra Interreg europear programaren karietara, diru laguntza eskaera dosierraren osatzea eta aurkeztea, bai eta dagokion mugaz gaineko lankidetzaren hitzarmenaren formalizatzea eta adostea.

- **Hizkuntzaren kalitatea sustatzea**

  - Nola-Erran frantsesa-euskara lineako hiztegiaren elektroniko plataformaren hobetze lanak :
    - Sartze berrien sortze tresna sortzea
    - Euskarazko hitzen bilatze tresna sortzea
    - Telefono mugikorretan kontsultarako aplikazioaren sortzea

  - Nola-Erran frantsesa-euskara lineako hiztegiaren edukiaren hobetze lanak :
    - Egokitzeak gauzatu itzulpenetan
    - 534 sartze berriren sortzea eta itzulpena

  - Hiztegiaren kontsulten segitzea urteka :
    - 2010 : 14.137 bisita, 79.085 kontsulta
    - 2011 : 32.766 bisita, 202.809 kontsulta
    - 2012 : 59.343 bisita, 345.128 kontsulta
    - 2013 : 104.789 bisita, 643.998 kontsulta
    - 2014 : 162.403 bisita, 978.637 konsulta
    - 2015 : 252.000 bisita, 1.375.000 konsulta

## ...2016ko jarduera programa

- Ekoizpen eta baieztapen linguistikoak: Euskal Autonomia Erkidegoko dispositiboen azterketaren jarraipena, itzulpenen kudeaketaren alorrari dagokionezEuskararen eremuan kokatzen diren lurralde administratibo ezberdinen artean, euskararen adierazle sistema baten egituratzeko baldintzen aztertzen jarraitzea

- Euskararen eremuan kokatzen diren lurralde administratibo ezberdinen arteko euskararen adierazle sistema :
  - proiektuaren egituratzeko baldintzen aztertzen jarraitzea
  - datuen bilketarako behar den lana egin
- VI. Inkesta soziolinguistikoaren antolaketa eta prestaketa lanak

- **Hizkuntzaren kalitatea sustatzea**

  - Nola-Erran frantsesa-euskara lineako hiztegiaren hobetze lanen segitzea :
    - Egokitzeak gauzatu itzulpenetan
    - Sartze berri batzuen sortzea eta itzultzea

  - Nola-Erran Hiztegiaren kontsulten segitzea

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

**2015 jarduera bilana**

**2016rako aitzinikusi jarduera programa**